

Interes orokorreko xedapenak, **2017ko otsailaren 27tik martxoaren 5era** bitarteko aldizkarietan (BOE, EHAA, ALHAO, BAO, GAO eta EBAO) argitaratuak

I.- SEKTOREKO HITZARMEN KOLEKTIBOAK:

2017/03/3ko Estatuko Aldizkari Ofiziala

- **ENPLEGU ETA GIZARTE SEGURANTZAKO MINISTERIOA. Lan Hitzarmen Kolektiboak.** 2017ko otsailaren 20ko Ebazpena, Enpleguko Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bitartez erregistratzen eta argitaratzen den larru zurraketaren, uhalen eta larru industrialen 2016. urterako behin betiko soldata taulei eta 2017ko behin-behineko soldata taulei dagozkien akordioen akta eta larrugintzarako larruen zurraketaren alorrekoena 2016-2018. **2282 xedapena – 3 or.**
- **ENPLEGU ETA GIZARTE SEGURANTZAKO MINISTERIOA. Lan Hitzarmen Kolektiboak.-** 2017ko otsailaren 20ko Ebazpena, Enpleguko Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bitartez erregistratzen eta argitaratzen den publizitate enpresen sektoreko Hitzarmen Kolektiboaren 2017. urterako soldatei buruzko Akordio partziala. **2286 xedapena – 2or.**
- **ENPLEGU ETA GIZARTE SEGURANTZAKO MINISTERIOA. Lan Hitzarmen Kolektiboak.-** 2017ko otsailaren 20ko Ebazpena, Enpleguko Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bitartez erregistratzen eta argitaratzen den edateko urak eta hondakin urak hartzeko, jasotzeko, garraiatzeko, tratatzeko, banatzeko, saneatzeko eta arazteko industrien Estatuko V. Hitzarmen Kolektiboaren 2017. urterako soldata taulei buruzko akordioa. **2287 xedapena – 3or.**
- **ENPLEGU ETA GIZARTE SEGURANTZAKO MINISTERIOA. Lan Hitzarmen Kolektiboak.-** 2017ko otsailaren 20ko Ebazpena, Enpleguko Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bitartez erregistratzen eta argitaratzen diren oinetakoen industriaren 2016-2018 Hitzarmen Kolektiboaren 2017. urterako soldata taulak. **2290 xedapena – 2 or.**
- **ENPLEGU ETA GIZARTE SEGURANTZAKO MINISTERIOA. Lan Hitzarmen Kolektiboak.-** 2017ko otsailaren 22ko Ebazpena, Enplegu Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bitartez erregistratzen eta argitaratzen den ile-apaindegi, apaindegi, gimnasio eta antzekoetarako Hitzarmen Kolektiboaren 2017. urterako soldaten taulei buruzko akordioa. **2291 xedapena – 2 or.**

<http://boe.es/boe/dias/2017/03/03/pdfs/BOE-A-2017-2291.pdf>

II.-XEDAPEN ARAUEMAILEAK:

2017/02/27

- **HEZKUNTZA, KULTURA ETA KIROL MINISTERIOA. Dopina.-** 2017ko otsailaren 20ko Ebazpena, Kiroletako Kontseilu Nagusiaren Presidentetzarena, zeinaren bitartez onartzen den kirolariak lokalizatzeko inprimakia. **2053 xedapena – 14 or.**

2017/02/28

- **PRESIDENTETZAREN ETA LURRALDE ADMINISTRAZIOEN MINISTERIOA.-** Legezko ordutegia.- PRA/157/2017 Agindua, otsailaren 24koa, zeinaren bitartez argitaratzen den 2017. urtetik 2021. urtera bitarteko udako ordutegia hartzen duen aldirako egutegia. **2065 xedapena – 2 or.**

2017/03/4

- **JUSTIZIA MINISTERIOA. Jabetza, Merkataritza eta Ondasun Higigarrien Erregistroak.-** 195/2017 Errege Dekretua, martxoaren 3koa, zeinaren bitartez aldatzen den Jabetza Erregistroen, Merkataritza Erregistroen eta Ondasun Higigarrien Erregistroen mugapena. **2307 xedapena – 231 or.**
- **ENPLEGU ETA GIZARTE SEGURANTZAREN MINISTERIOA. Antolamendua.** 196/2017 Errege Dekretua, martxoaren 3koa, zeinaren bitartez aldatzen den 1879/1996 Errege Dekretua, abuztuaren 2koa (Laneko Segurtasun eta Osasunaren Batzorde Nazionalaren osaera arautzen duena), Estatuaren Administrazio Orokorraren ministerioetako sailen egitura berrira egokitzeko. **2311 xedapena – 2 or.**
- **PRESIDENTETZAREN ETA LURRALDE ADMINISTRAZIOEN MINISTERIOA. Lehergaiak.-** 130/2017 Errege Dekretua, otsailaren 24koa, zeinaren bitartez onartzen den Lehergaien Araudia. **2313 xedapena – 309 or.**

2017/03/2

- **XEDAPEN OROKORRAK. Ekonomia garapenaren eta azpiegituren saila.-** 2017ko urtarrilaren 31ko AGINDUA, Ekonomiaren Garapen eta Azpiegituren Sailburuarena, zeinaren bitartez arautzen den Hazitek Enpresa I+G bultzatzeko programa. **1116 xedapena – 27 or.**
- **XEDAPEN OROKORRAK. Osakidetza – Servicio Vasco de Salud.-** 2017ko otsailaren 15eko AKORDIOA, Osakidetza-Servicio Vasco de Salud Erakunde Publikoaren Administrazio Kontseiluarena, zeinaren bitartez onartzen diren 2017ko ekitaldian osasunaren arloak eta irakaskuntzak zerbitzuak jasotzeagatik ordaindu beharra duten hirugarrenei kobratuko zaizkien tarifak. **1117 xedapena -3 or.**

2017/02/27

- **ARABAKO BATZAR NAGUSIAK. Foru Arauak.-** 2/2017 Foru Araua, otsailaren 15ekoa, urtarrilaren 24ko 1/2017 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua baliozkotzen duena; azken horrek Arabako zerga araudira egokitzen ditu zerga berezien arloan egindako zenbait aldaketa. **687 xedapena – 1or.**

2017/03/01

- **FORU GOBERNU KONTSEILUAREN FORU DEKRETUAK.-** Foru Gobernu Kontseiluaren 6/2017 Foru Dekretua, otsailaren 21ekoa, ezartzen duena identifikatu beharra finantza kontu jakin batzuen titulartasuna duten edo kontu horiek kontrolatzen dituztenen zerga egoitza, eta haiei buruzko informazioa eman beharra, elkarrekiko laguntzaren esparruan. **711 xedapena – 6 or.**
- **FORU GOBERNU KONTSEILUAREN FORU DEKRETUAK.-** Foru Gobernu Kontseiluaren 5/2017 Foru Dekretua, otsailaren 21ekoa, Foru Aldundi honen Gardentasunaren Foru Kontseilua eratzen duena eta haren antolaketaren eta funtzionamenduaren arautegia onartzen duena. **712 xedapena – 6 or.**

BAO (Bizkaiko Aldizkari Ofiziala): [Bizkaiko Aldizkari Ofizialaren linka](#)

GAO (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala): [Gipuzkoako Aldizkari Ofizialaren linka](#)

EBAO (Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala): [Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialaren linka](#)

Kepa Bilbao Zubiaur

Tel.: 94 425 25 15 Faxe: 94 423.22.95

e-mail: informacion.juridica@mutualia.es

.....

GIZARTE SEGURANTZAREKIN ELKARLANEAN DIHARDUEN MUTUALITATEA, 2. ZK.

HENAO 26 - 48009 BILBAO